



aballarri

EGAPE IKASTOLAKO BULETINA

EGAPE, URNIETARRON IKASTOLA PUBLIKOA

EUSKARA IZARRA, BOOKTRAILER LEHIAKETAN EL EUSKARA PROTAGONISTA EN EL CONCURSO DE BOOKTRAILERS

Galtzagorri Euskal Haur eta Gazte Literatura elkarteak urtero antolatzen du Booktrailer lehiaketa eta Egape ikastolako Bigarren Hezkuntzako 3 eta 4. mailetako ikasleek, taldeka antolatuta, urtero parte hartzen dute eta finalera sailkatu izan dira Ikastolako hainbat lan.

Egitasmo honen helburuak euskararen erabilera sustatzea, irakurtzeko zaletasuna bultzatzea, euskal literatura gazteengana hurbiltzea eta gazteak euskarazko sormen lanetara bideratzea dira, hain zuzen ere, Egape Ikastolak bere Hizkuntza Proiektuan eta Irakurketa planaren barruan biltzen dituen xede guztiak bete-betean landuz.

Booktrailer bat liburu baten inguruko bideo motz bat da. Bertan, liburuaren inguruko informazio nagusia trailer modura aurkezten da jendeari jakin-mina piztu eta liburuaren irakurtzera anima dadin.

Booktrailerra egiteko ikasleek, Galtzagorri elkartearen eskutik, ikastaroa jasotzen dute eskolan. Ondoren, ikasgela bakoitzak mailarako proposatu den liburu bat irakurtzen du. Gelan liburuaren lantzen da eta booktrailerrerako gidioak prestatzen dira. Azkenik, talde bakoitzak liburuaren gaineko booktrailerra sortzen du lehiaketara aurkezteko.

La asociación de Literatura Infantil y Juvenil Vasca Galtzagorri organiza anualmente el concurso de booktrailers y el alumnado de 3º y 4º de Secundaria de Egape Ikastola, organizado en grupos, participa todos los años y varias veces han sido finalistas.

Los objetivos de este proyecto son fomentar el uso del euskera, fomentar la afición por la lectura, acercar la literatura vasca a nuestro alumnado y orientarlo hacia la creación en euskera, trabajando íntegramente todos los objetivos que Egape Ikastola recoge en su Proyecto Lingüístico y en su Plan de lectura.

Un booktrailer es un vídeo corto sobre un libro, en el que se presenta la información principal del libro como un tráiler para despertar la curiosidad del público y animarle a su lectura.

El alumnado recibe en la escuela la formación para realizar el booktrailer de la mano de la asociación Galtzagorri. A continuación, cada grupo lee el libro que se ha propuesto para el curso. En las clases de euskera se trabaja el libro y se preparan los guiones para el booktrailer. Por último, cada grupo crea un booktrailer sobre el libro para presentarlo al concurso.



JOLASAREN GARRANTZIA

Hautzaroon jarduera nagusia jolasa da, eta haurren garapeneraren beharrei erantzuten dio. Jolasari esker, gorputza, adimena, afektibitatea, sormena eta soziabilitatea harmonian garatzen dira. Jolasak bizitzarako prestakuntza iturri dira eta heldutasunean bizi ditzaketen egoera dibertigarri, arazotsu eta baita xebreak ere esperimintatzeko aukera ematen die.

Jolasa haurtzaroko ekintza garrantzitsuenetariko bat da. Honen bitartez, pertsonaren garapenerako ezinbestekoak diren hainbat prozesu kognitibo, afektibo, sozial... abian jartzen dira. Hurrek jolasa behar dute ikasteko eta honela konpartitzen, ingurukoei laguntza eskaintzen, galtzen, irabazten, arauak jartzen eta errespetatzen, elkarri laguntzen, amets egiten, komunikatzen... ikasten dute.

Haurren sozializazio prozesuan jolasa komunikaziorako eta sozializaziorako tresna indartsua da. Haurra bakarkako jolasak utzi eta sozializazio garaian sartzen denean, jolasa izaten da prozesu horretan komunikatzeko erabiltzen duen baliabidea. Baliabide hori, gainera, euskaraz ematen bazaie, hurrekin euskara sustatzeko tresna ere bada. Hori horrela, Egape Ikastolan urteak daramatzagu 5 eta 6 urte bitarteko ikasleekin KIRIKETAN egitasmoa gauzatzen. Modu honetan, euskaraz jolas egiten ondo pasatzen dute hurrek, gustura sentitzen dira eta jarduera dibertigarriekin lotzen dute euskara elkarren arteko harremanak sakontzen dituzten bitartean.



LA IMPORTANCIA DEL JUEGO

El juego es la actividad principal de la infancia, y, además de responder a las necesidades de desarrollo de esta etapa, posibilita el desarrollo armonioso de cuerpo, inteligencia, afectividad, creatividad y sociabilidad. Los juegos propician la preparación para la vida adulta y suponen una oportunidad para la experimentación de las situaciones divertidas, problemáticas y, en ocasiones, también curiosas, que les tocará vivir a quienes ahora son niños y niñas.

El juego es una de las actividades más importantes de niños y niñas, una vía natural para la puesta en marcha de ciertos procesos cognitivos, afectivos, sociales... que hacen posible el desarrollo humano. Los niños y niñas necesitan el juego para aprender. Por medio de esta actividad aprenden a compartir, a solicitar ayuda a las personas de su entorno, a perder, a ganar, a establecer normas y a respetarlas, a ayudarse, a soñar, a comunicarse...

En el proceso de socialización de niños y niñas el juego es una herramienta potente de comunicación y socialización. Cuando el niño o niña abandona los juegos individuales y entra en la etapa de socialización, el juego supone el recurso para comunicarse durante ese proceso. Además, si se les da en euskera, es también una herramienta para fomentar nuestro idioma. Así, en Egape Ikastola llevamos años desarrollando el proyecto KIRIKETAN con el alumnado de 5 y 6 años. De esta manera, se divierten jugando en euskera, se sienten a gusto y relacionan nuestra lengua con actividades divertidas mientras profundizan en sus relaciones.



OSCAR JAMES, GURE HIZKUNTZA LAGUNTZAILEA

Azken hamar ikasturteetan, Egape Ikastolako Bigarren Hezkuntzan, ingeles hizkuntza laguntzailea izan dugu. Honek arloa ingelesez lantzen duten irakasleei laguntza ematen die ikasleen ahozko trebetasunak indartzeko. Gainera, gure ikasleek aukera dute tokiko ingelesa duen pertsona baten kultura eta ohiturak gertutik ezagutzeko eta hartu-emanak ingelesez ahalik eta era naturalenean izateko.

Herralde ezberdinetatik etorritako laguntzaileak izan ditugu urteetan zehar, Atlantatik, Kaliforniatik, Dublinetik, Ontariotik, Miamitik..., aurten Oscar James gaztea Zeelanda Berritik etorri zaigu, Wellingtonetik, hain zuzen ere.

Oscar Londresen jaioa izan arren, Gambian, Zelanda Berria eta Australian bizi izandakoa da eta leku guztietako esperientziak kontatu dizkigu. Honela gure ikasleek munduko beste lekuetako bizimodua eta bizipenak ezagutzeko aukera ezinhobea izan dute eta bide batez, ingelesaren ulermena eta ahozko jarduna lantzeko aukera ere.

Ikasleak oso gustura daude Oscarrekin eta ongi moldatu dira harekin. Irakasle taldearekin ere berehala sortu du harreman estua, eta erraz egokitu da gure ikastetxera. Aukera aprobetxatuko du aldi berean euskara eta gaztelania ikasteko, ez baitaki ez bat ez bestea.

Zorte onekoak gara gure hizkuntza laguntzaileekin, eta esperientzia paregabea da gure ikasleentzat.

OSCAR JAMES, NUESTRO AUXILIAR DE CONVERSACIÓN

En los últimos diez años, en Educación Secundaria de Egape Ikastola, hemos contado con un auxiliar de conversación de lengua inglesa. Esto ayuda al profesorado que trabaja la asignatura de inglés a reforzar las habilidades orales del alumnado. Además, nuestros alumnos y alumnas tienen la oportunidad de conocer de primera mano la cultura y costumbres de otros lugares y de comunicarse en inglés de la forma más natural posible.

Hemos contado a lo largo de los años con auxiliares llegados de diferentes países: Atlanta, California, Dublín, Ontario, Miami..., este año Oscar James nos ha venido de Nueva Zelanda, concretamente de Wellington.

A pesar de haber nacido en Londres, Óscar ha vivido en Gambia, Nueva Zelanda y Australia y nos ha contado experiencias de todas partes. De este modo, nuestro alumnado ha tenido la oportunidad de conocer la vida y vivencias de otros lugares del mundo a la vez que han trabajado la comprensión y la práctica oral del inglés.

Tanto los alumnos y alumnas como el profesorado han entablado una buena relación con Óscar que aprovechará la ocasión para aprender euskera y castellano, ya que desconoce ambos idiomas.

Seguiremos ofreciendo esta experiencia única y enriquecedora a nuestro alumnado.





Etxeberri 3/4, Urnieta.
943 00 95 58
egape@egape.eus

Lizardi kalea, 5, Urnieta.
943 00 92 75
egape@egape.eus

Azorte kalea z/g, Urnieta.
943 89 94 25
egapebhi@egape.eus

